

## Beraunen "nabarmen" hobetuko da bizi-kalitatea, GI-20 errepideko zarataren aurkako pantailei esker

*Aldundia Bidegiren bidez, Errenteriako auzo honetan egiten ari den lan hau Zarataren Aurkako Ekintza Planaren barruan kokatzen da. Lurralde osoa hartzen du egitasmoak, eta zarata-maila handia jasaten duten 10.000 herritar baino gehiagorengana iritsiko da, bere hedadura osoan.*



GI-20 errepidean, Errenteriako Beraun auzoaren parean, pantailei esker instalatzeko lanek aurrera jarraitzen dute. Egituraren zapatak eta euskarriak instalatzen ari dira aste hauetan, eta jarduera osoa aurtengo udaberrirako amaitzea aurreikusten da. Datorren maiatzerako, hain justu, Aintzane Oiarbide, Bide Azpiegituretako diputatuak aurreratu duenez; gaur goizean Aizpea Otaegi alkatearekin batera, lanetara egin duen bisitan. Esku-hartze horren garrantzi berezia azpimarratuz, eragin bereziko eremua dela azaldu du diputatuak. 4.000 pertsona inguru bizi dira bertan, eta, behin esku-hartzea amaituta, "nabarmen" hobetuko da haien bizi-kalitatea. Horrela, egitura fonoxurgatzaile horiek Elgoibar eta Tolosako hainbat tokitan azken hilabeteetan jarri diren egiturei gehituko zaizkie, eta, datozen hilabeteetan Zarautzen, Beasainen eta, inguru horretan bertan, AP-8 eta GI-20 errepideen arteko lotunean (Errenteria eta Oiartzun artean) instalatuko direnekin jarraituko da plana osatzen.

Gipuzkoako Foru Aldundia, Bide Azpiegituretako Departamentuaren bitartez garatzen ari den Zarataren Aurkako Ekintza Plana da abiapuntua, lurraldeko beste errepide eta autobideetako hainbat tokitan bezala. Izan ere, Oiarbidek zuzentzen duen departamentuak arreta berezia eskaintzen dio ekimen horri, milaka gipuzkoarren egunerokoan duen eragin zuzenagatik. Beraunen kasuan bezala, auzo oso bati eta 4.000 pertsona ingururi egingo baitzaie mesede. Hori horrela, diputatuak azpimarratu du



Ekintza-plana “asmo handikoa” dela. Ibilbide-orri horrek, hainbat jarduketaren bidez, ia 3,7 kilometrotan murriztuko du inpaktu akustikoa gure errepideetan, eta, are garrantzitsuagoa dena, zarata jasaten duten eremu horietatik gertu aurkitzen diren 10.100 gipuzkoarren bizi-kalitatea hobetzea ekarriko du. Planaren hedapenak 20 milioi euro inguruko inbertsioa aurreikusten du Gipuzkoako hainbat udalerritan. Foru sareko errepideak kontuan hartuta diseinatu da plana, urtean 3 milioi ibilgailu baino gehiago jasaten dituzten errepideak dira, eta besteak beste, N-I, AP-8 eta GI-20-an jardungo da; Tolosa, Zarautz edo Erreterria parean.

Erreterriako alkate Aizpea Otaegik, bere aldetik, erakundeen arteko lankidetzaz nabarmendu nahi izan du eta herrian bertan egingo diren bi interbentzioak aipatu ditu, Berauneko pantailen ostean; Markola, Agustinak eta Lartzabal auzoak babesteko egiturak kokatuko baitira etorkizun hurbilean: “jauzi kualitatibo garrantzitsua da, bizilagunen bizi-kalitatean eragin positibo zuzena edukitzea espero duguna”, esan du Otaegik.

### **Kilometro bat baino gehiagoko luzeran**

Pantaila akustikoak jartzeko lanak urriaren 5ean hasi ziren, 1,2 kilometroko tarte batean, Arramendiko biaduktutik hasi eta Pasaiaiko porturanzko eta Erreterriaranzko noranzkoan bigarren irteeraraino. Zehazki, metalezko egitura bat da, GI-20 errepidera ematen duen kanpoko gainazalean diseinu fonoxurgatzailea duen xafla zulatu bat duena. Xafla horrek barneko harri-zuntzeko geruza batera xurgatzen du soinua, eta material horri esker, trafikoak sortutako zarata geldiarazten da. Ekintza-planaren oinarrian dauden neurketen arabera, inguru hartako bizilagunek 55dB baino gehiagoko zarata-maila dute gauez.

### **Egituraren ezaugarriak eta eragina zirkulazioan**

Egiturak 2 metroko altuera izango du biaduktuaren zatian, eta 4 metroraino iristen da gainerako 840 metroko tarte osoan, Beraun auzoaren aurrealdera ematen duen zatian, errepidearen ertzean. Biaduktuaren lehen baoaren azpian, Arramendi kaleko bidea eta espaloia eta oinezkoentzako bidea babesteko arkupe bat ere eraikiko da. Behin instalazioa amaituta, paisaiara egokitzeko esku-hartze bat egingo da, egitura bisualki ingurunean integrazteko helburuarekin.

Azkenik, instalazioaren hurrengo etapak behar bezala garatu ahal izateko, bidearen eskuineko erreia itxita egongo da lanak gauzatu arte. Horrela, segurtasun-hesi zurrinak jarrita jarraituko du tarte osoan, langileen eta gidarien segurtasuna bermatze aldera.

## Beraun mejorará “de forma sustancial” su calidad de vida gracias a la instalación de las pantallas acústicas en la GI-20

*La intervención de la Diputación a través de Bidegi, en el barrio de Errenteria forma parte del Plan de Acción frente al Ruido, que se extiende a todo el territorio y beneficiará a más de 10.000 personas expuestas a altos niveles de ruido.*



Los trabajos para la instalación de las pantallas acústicas en la GI-20 a la altura del barrio de Beraun en Errenteria, siguen su curso con la instalación de las correspondientes zapatas y soportes de la estructura, y con la previsión de que toda la actuación se encuentre completada para primavera de este mismo año. Concretamente, para el próximo mes de mayo, según ha adelantado la diputada de Infraestructuras Viarias, Aintzane Oiarbide, en la visita que esta mañana ha realizado hoy, acompañada de la alcaldesa de la localidad, Aizpea Otaegi, con el objetivo de seguir de cerca el desarrollo de esta actuación. Esta es una intervención que considera “especialmente importante” al tratarse de “una zona de especial afección, donde viven cerca de 4.000 personas que, una vez finalizada la intervención, verán mejorada de forma sustancial su calidad de vida”. La instalación de estas estructuras fonoabsorbentes se sumará, de esta manera, a las ya colocadas a lo largo de los últimos meses en diferentes puntos de los municipios de Elgoibar y Tolosa y a las que se instalarán en Zarautz, Beasain y, también en la misma zona, en el enlace de la AP-8 con la GI-20 entre Errenteria y Oiartzun.

Tanto las pantallas acústicas de este tramo de la GI-20 como las que se han instalado en diversos puntos de las diferentes carreteras y autovías de Gipuzkoa, parten del amplio esfuerzo que la Diputación Foral de Gipuzkoa está desarrollando a través del departamento de Infraestructuras Viarias con el Plan de Acción frente al Ruido. Iniciativa a la que desde el departamento dirigido por Oiarbide, se le presta “especial atención por su incidencia directa en el día a día de miles de guipuzcoanos y guipuzcoanas”, como es el caso de Beraun, que “beneficia a todo un barrio y a cerca de 4.000 personas”. Por ello, según ha subrayado la diputada, “el plan de acción es muy ambicioso porque se trata de una hoja de ruta que, mediante diferentes actuaciones, reducirá el impacto acústico en



casi 3,7 kilómetros en nuestras carreteras, y lo que es más importante, redundará en la mejora de la calidad de vida de 10.100 guipuzcoanos y guipuzcoanas que residen o desarrollan su vida cerca de estas zonas expuestas al ruido”. La extensión del plan prevé una inversión de unos 20 millones de euros en varios municipios de Gipuzkoa, se ha diseñado teniendo en cuenta las carreteras de la red foral que soportan más de 3 millones de vehículos al año e incluye, entre otras, las carreteras N-I, AP-8 y la GI-20 a su paso por Tolosa, Zarautz o Errenteria.

La alcaldesa de Errenteria, Aizpea Otaegi, por su parte, ha querido poner en valor la colaboración institucional y ha citado las dos intervenciones que se llevarán a cabo en la localidad, ya que, tras las pantallas de Beraun, se procederá a la instalación de las estructuras de protección de los barrios de Markola, Agustinas y Lartzabal en un futuro próximo: «Se trata de un importante salto cualitativo que esperamos tenga un impacto positivo directo en la calidad de vida de las y los vecinos», ha afirmado Otaegi.

### **Un tramo de más de un kilómetro**

Los trabajos de colocación de las pantallas acústicas comenzaron el pasado 5 de octubre, en un tramo de 1,2 kilómetros de longitud que se extiende desde el viaducto de Arramendi hasta la salida 2, hacia el puerto de Pasaia y Errenteria. Se trata, en concreto, de una estructura metálica que cuenta, como característica destacada, con un diseño fonoabsorbente compuesto por una chapa perforada en la superficie exterior que da a la carretera GI-20. Ésta se encarga de absorber el sonido hasta una capa de lana de roca en el interior, donde gracias a este material, se parapeta el ruido generado por el tráfico. Según las mediciones en las que se basa el plan de acción, los vecinos y vecinas del entorno están expuestos a un nivel de ruido que supera los 55dB en horario nocturno.

### **Características y afecciones en la circulación**

La estructura tiene una altura de 2 metros en el tramo del viaducto y alcanza los 4 metros en todo el tramo de 840 metros que afecta directamente al frente urbano del barrio de Beraun, en el borde de la carretera. Bajo el primer vano del viaducto también se levantará un pórtico de protección para el vial y la acera de la calle Arramendi y el camino peatonal. Una vez finalizada su instalación, se le sumará una intervención paisajística con el objetivo de integrar la estructura en el entorno.

Finalmente, como desde el inicio de los trabajos y para el correcto desarrollo de las siguientes etapas de la instalación, el carril derecho de la vía permanecerá cortado hasta la finalización de las obras en mayo de este año. De esta manera, seguirá colocada la barrera de seguridad rígida en todo el tramo afectado para garantizar la seguridad de operarios y conductores.

Errenteria, 11 de enero de 2023.